


INFLAZIOA



Inflazioa hiru hamarren igo zen otsailean

KPI indize orokorra
 Urte arteko aldakuntza tasa


Kontsumoko prezioen indizea (KPI) hiru hamarren igo zen EAEn pasa den otsailean eta urte arteko aldakuntza tasa %1,3an kokatu zuen. Gorakada horren atzean, erregaien eta elikagai fresko batzuen garestitzea dago, hala nola ortuariena eta lekariena. Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioa oraindik egonkor dago %0,7an. Balio hori 2018ko hasieratik izan duen apalena da.


KPIaren banaketa
 Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,3	1,3
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	0,7	0,6
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,7	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,3	0,5
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	3,9	0,7
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	2,9	0,2
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	4,6	0,5

Azpiko inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak

Hondar inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak


Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Petrolioak berriki izan dituen prezio igoerek, upela jadanik 70 dolarren inguruan saltzen baita, talde inflazio-gileena garraioa izatea eragin zuten, talde horrek aurreko hilekoetan hazkunde tasa apalagoak jaso eta gero. Zehazkiago adierazita, erregaiei garestitzeak bi puntu eta hiru hamarrenetan igoarazi zuen talde horren urte arteko tasa, %1,1etik %3,4ra igoz. Era berean, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak ere ekarpena egin zioten inflazioaren igoerari, beren aldakuntza tasa puntu bat eta hiru hamarren igo zelako, %1,5era iritsi arte. Aitzitik, jaitsierak eskuratu ziren etxebizitzan, puntu bat eta erdi gutxitu baitzen %1,1ean kokatu arte, argindarraren merkatzearen ondorioz; aisia eta kultura, balio negatibotik (%-1,5) jarraitu baitzuen talde horrek, pakete turistikoaren prezioen igoera 2018ko otsailekoa baino txikiagoa izan zelako; eta azkenik, komunikazioen taldean, puntu bat baino gehiago apaldu zelako, telefoniaren salneurriak izan zuen bilakaeraren ondorioz.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko otsaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,3	1,1	1,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,5	1,4	1,8
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,4	1,2	3,9
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,8	1,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaia	1,1	0,9	2,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,6	0,6	0,4
Medikuntza	0,1	0,9	0,9
Garraioa	3,4	1,8	1,2
Komunikazioak	1,6	1,5	-2,1
Aisia eta kultura	-1,5	-1,6	0,7
Hezkuntza	0,8	1,0	0,0
Jatetxeak eta hotelak	1,8	1,8	1,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,4	1,4	1,6

Iturria: INE eta Eurostat.